

Gipuzkoako Epaile Batzordearen barne-araudia

1. Araudiaren helburuak. Aplikazio-eremua eta iraupena.	2
1.1. Sorkuntza	
1.2. Araudiaren helburuak	
1.3. Araudiaren aplikazio-eremua	
1.4. Iraupena	
1.5. GEBkiko korrespondentzia eta erakunde horren egoitza	
2. Kide Izatea	2
2.1. Kide izatea	
2.2. Epaileen eta mahai-laguntzaileen kategoria	
2.3. Igoerak eta jaitsierak	
2.4. Epailetzan hasteko ikastaroa	
2.5. Epaileen eta mahai-laguntzaileen funtzioak	
3. GEBren egitura	5
3.1. GEBko kargudunak eta haiek hautatzeko prozedura	
4. GEBko kargudunen funtzioak	5
4.1. Funciones del Director/a de Epaileen zuzendariaren funtzioak	
4.2. Laguntzaileen arduradunaren funtzioak	
4.3. Prestakuntza-arduradunaren funtzioak	
4.4. GEBn aurrekontua	
5. GEBko kideen eskubideak eta betebeharrak	6
5.1. Eskubideak	
5.2. Betebeharrak	
6. Izendapenak eta prestasunak	7
7. Jokabide-arauak	8
8. Hutsegiteak eta zehapenak	9
9. Azken xedapenak	9

1. Araudiaren helburuak. Aplikazio-eremua eta iraupena.

1.1. Sorkuntza

Gipuzkoako Epaileen Batzordea (aurrerantzean GEB) sortu da. Gipuzkoako Saskibaloia Federazioaren (aurrerantzean GSF) mendeko organoa da eta federazio horretan epaile-jarduera zuzentzeko eta antolatzeko helburua du, betiere indarrean dagoen legedia betez.

1.2. Araudiaren helburuak

GEBn araudi honek batzordeko kideen jarrera arautzen du, baita GSFren beste organoekiko harremana ere.

1.3. Araudiaren aplikazio-eremua

Araudiaren aplikazio-eremuak GSFk antolatutako lehiaketa guztiak hartzen ditu barnean, baita bertako kideek beste lehiaketa batzuetan egiten duten jarduna ere, baldin eta GSFk horretarako izendatu baditu.

1.4. Iraupena

Araudi honek iraupen mugagabea du, betiere GEBk hemen zehazten diren funtzioak betetzen dituen bitartean. Batzar nagusiari dagokio araudiak onartzea eta aldatzea, federazioaren estatutuak esleitzen dizkion eskumenak edozein izanik ere.

1.5. GEBkiko korrespondentzia eta erakunde horren egoitza

GEBra korrespondentzia zein edozein motatako dokumentazioa bidaltzeko helbidea hau da: GSFren egokitza. Portuetxe kalea, 23B – 4.a, 11. lokala (CEMEI eraikina) – 20018 Donostia. Telefonoa: 943 47 33 24. Helbide elektronikoa: arbitros@gisaski.eus.

2. Kide izatea

2.1. Kide izatea

GEBko kideak dira GSFk izapidetutako lizentzia duten epaile eta laguntzaile guztiak (Euskal Saskibaloia Federazioak —ESF— emandako lizentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako GKP lizentzia). Hona hemen epaile-erakundearen jarduneko laguntzailea edo epailea izan eta federazio-lizentzia lortzeko baldintzak:

- ▶ Federazio fitxa izapidetzea GSFren oinarrietan ezarritakoaren arabera.
- ▶ GSFk kasuan-kasuan ezarritako prestakuntza egiaztatzea.

- ▶ GEBk aldiro antolatzen dituen testetan eta jardueretan parte hartzea (parte hartu ezean, ikus 8. atala: hutsegiteak eta zehapenak).

2.2. Epaileen eta mahai-laguntzaileen kategoria

Gipuzkoa-mailan, epaileen zuzendariak izango du ebaluazio- eta sustapen-sistemaren ardura, betiere prestakuntza-arduradunen laguntza duela. Haren iritziak GSFra helaraziko dira, onartzeko, eta, hala badagokio, Euskal Epaileen Batzordera, adosteko.

Epaileak:

- ▶ Espainiako Saskibaloia Federazioa/ESF
- ▶ Probintziala 1
- ▶ Probintziala 2

Laguntzaileak:

- ▶ ACB
- ▶ Espainiako Saskibaloia Federazioa/ESF
- ▶ Probintziala

2.3. Igoerak eta jaitsierak

Kategorien artean igotzeko eta jaisteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, eta, gainera, GSFk onartu egin beharko ditu.

Igoerak:

- ▶ Kategoriaz igotzeko aukera izateko, beheagoko kategorian egon behar du edo kategoria horretarako jaitsiarazia izan behar du.
- ▶ Aldeko txostena, honako alderdi hauetan oinarrituta:
 - a) Epaileen zuzendariaren eta prestakuntza-arduradunen txostenak, egindako behaketan eta jarraipenean oinarritua.
 - b) Egindako kontrol edo proba tekniko eta fisikoen emaitza, halakorik egin bada.

Jaitsierak:

- ▶ Lizentzia ez berritzea adierazitako egunen barruan.
- ▶ Bere kategorian luze samar bajaran edo jarduerarik gabe egotea, arrazoi justifikaturik gabe.
- ▶ Kontrako txostena, honako alderdi hauetan oinarrituta:

- a) Epailen zuzendariaren eta prestakuntza-arduradunen txostenak, egindako behaketan eta jarraipenean oinarrituak.
- b) Gorabehera larriak edo errepikakorrak, teknikoak edo jarrerazkoak.
- c) Epailen jarduteari behin eta berriz uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe.

2.4. Epailen hasteko ikastaroa

Epailen edo laguntzaile federatu eta GKPkoentzat librea da.

- ▶ Epailen-ikastaroaren ordu kopurua: 8 ordu teoriko-praktiko, GSFk ezarritako ebaluazio teoriko eta praktikoa barne. Dagozkion txostenak egingo dira.
- ▶ Mahai-laguntzaileko ikastaroaren ordu kopurua: 5 ordu teoriko "ohargile" eta "krono" lanetan trebatzeko, GSFk ezarritako ebaluazio teoriko eta praktikoa barne. Dagozkion txostenak egingo dira.
- ▶ Aldian aldiko ebaluaketak (ikastaroan zehar eta haren ondoren).
- ▶ Joko-arauei eta epailen edo ohar-hartzaile jarduteko mekanikari buruzko nahikoa jakintza bermatzen duen kirol-arloko prestakuntza edo ikastaro oro, betiere GSFk nahikoa prestakuntza gisa homologatuak baditu.

2.5. Epailen eta mahai-laguntzaileen funtzioak

- ▶ Epailen edo mahai-laguntzailea izateagatik agintzen dizkioten guztiak, baldin eta funtzio horiek FIBA arauetan eta GSF, ESF eta Espainiako Saskibaloiko Federazioa erakundearen gainerako araudietan bilduta badaude.
- ▶ Joko-araudia, lehiaketa-oinarriak eta GSFren araudia betetzea eta betearaztea.
- ▶ Aritzeko prestasuna markatzea GSFren sistema ofizialean ezarritako denboran eta moduan.
- ▶ Epailen nagusiak partida bakoitzaren emaitza, akta eta ordainagiria emango ditu, GSFk zehaztutako sistemaren arabera.
- ▶ Prestakuntza-jardueretan eta deialdia jaso duela-eta egin beharreko bilerak egitea, edo, hala badagokio, nahikoa aurrerapenez jakinaraztea zergatik ezingo den joan. Arau hori ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da.

3. GEBren egitura

3.1. GEBko kargudunak eta haiek hautatzeko prozedura

- ▶ GSFko epaileen zuzendaria GSFko zuzendaritza batzordeak hautatu eta izendatuko du.
- ▶ Laguntzaileen arduraduna: GSFko epaileen zuzendariak proposatuta, GSFko zuzendaritza batzordeak izendatuko du.
- ▶ Prestakuntza eta jarraipeneko arduradunak: GSFko epaileen zuzendariak hautatu eta izendatuko ditu, GSFko kirol-arloko arduradunarekin batera.
- ▶ Karguak kirol-denboraldiarekin batera amaituko dira.

4. GEBko kargudunen funtzioak

4.1. Funciones del Director/a de Epaileen zuzendariaren funtzioak

- ▶ Indarreko arauak betearaztea, betiere GEBko edozein kideren eta GSFren interesak babestuta.
- ▶ GSFko arduradun teknikoekin komunikazio estua izatea.
- ▶ GEB zein GSF ordezkatzeari gonbidatzen duten beste ekitaldi batzuetan.
- ▶ GSFren bitartez deialdiak egin eta GEBn bileretan buru aritzea.
- ▶ Epaile eta laguntzaileentzako prestakuntza-plana lantzea eta koordinatzea.
- ▶ Epaile eta laguntzaileentzako prestakuntza-planaren jarraipena egitea.
- ▶ Epaile eta laguntzaileak mailaz igotzeko proposamenak lantzea.
- ▶ Laguntzaileen eta prestakuntzaren arduradunak proposatzea eta koordinatzea.
- ▶ Bere ardura-eremuan gertatzen diren gorabehera garrantzitsuen berri ematea.

4.2. Laguntzaileen arduradunaren funtzioak

- ▶ Epaileen zuzendariari aholkua eman eta harekin lankidetzan aritzea hark emandako funtzioetan.
- ▶ GSFko arduradun teknikoekin komunikazio estua izatea.
- ▶ Informazioa bideratzea jarduerak eta izendapenak emaitza ona izan dezaten.
- ▶ Solaskide izatea laguntzaileen eta epaileen zuzendariaren artean.
- ▶ Epaileen zuzendariak jarduerak edo hobekuntzak proposatzea bere ardura-eremuan, baita mahai-laguntzaileak igotzeko eta jaisteko proposamenak egitea ere.

- ▶ Prestakuntza-jarduerak antolatu eta egitea.
- ▶ Bere ardura-eremuan gertatzen diren gorabehera garrantzitsuen berri ematea.

4.3. Prestakuntza-arduradunaren funtzioak

- ▶ Epaileen zuzendariari aholkua eman eta harekin lankidetzan aritzea hark emandako funtzioetan.
- ▶ GSFko arduradun teknikoekin komunikazio estua izatea.
- ▶ Epaile eta laguntzaileentzako prestakuntza- eta jarraipen-jarduerak egitea.

4.4. GEBn aurrekontua

GSFren urteko aurrekontuaren arabera izango da bere jarduerak egiteari dagokionez. Epaileen zuzendariak aurkeztu eta planifikatuko ditu jarduera guztiak, aldeztatik GSFk onartu eta oniritzia emanda.

5. GEBko kideen eskubideak eta betebeharrak

5.1. Eskubideak

GEBko kideek honako eskubide hauek dituzte:

- ▶ Batzar Nagusian dagokion estamentuko ordezkarietarako hauteskundeetan hautesle eta hautagai izatea eta, hala badagokio, baita Euskadiko Saskibaloia Federaziokoetan ere, indarreko araudia betetz.
- ▶ Dagozkion federazio-organoen bileretara joatea eta horietan hitz egitea, indarreko arauak betetz.
- ▶ GSFk deituriko proba, ikastaro, prestakuntza-fase, selekzio eta bestelako kontzentrazioetara joatea eta haietan parte hartzea.
- ▶ Bere eginkizunak betetzeko beharrezko kirol-ekipamendua GSFren eskura izatea.
- ▶ ESFk kontratatutako aseguruaren bitartez osasun-laguntza egokia jasotzea, kirol-lesioa egiten badu.
- ▶ Zehapena ezartzen bazaio, organo eskudunei errekurtsioa aurkeztea.
- ▶ GEBri proposamen eta ekimenak aurkeztea, egoki deritzon.
- ▶ GEBk sustatzen dituen jardueren berri izatea eta horietan sortzen den dokumentazioa eskuratzeko aukera izatea.

5.2. Betebeharrak

GEBko kideek honako betebeharrak hauek dituzte:

- ▶ Federazio-lizentzia eta kirol-asegurua egitea.

- ▶ GSFren, ESFren eta GEBn araudiak eta gainerako arauak betetzea.
- ▶ Dagokion denboraldiko kirol-aseguruaren kuota eta federazio-lizentzia izapidetzeko gastuak ordaintzea GSFk ezarritako epeetan.
- ▶ GSFren eta ESFren diziiplina-araudiari men egitea.
- ▶ GEBk deitutako jardueretara bertaratzea.
- ▶ Araudi honetan gainerako ataletan xedatutakoak.

6. Izendapenak eta prestasunak

- ▶ GSFk esleitu beharreko partidetakoz izendapenak GSFren epaile-izendatzaileak egingo ditu. GSFko izendatzailea ez da GEBko kide izango.
- ▶ Izendapenak egiteko, kontuan hartuko dira ezarritako kategoria-sistema, epaile eta mahai-laguntzaile bakoitzak adierazitako prestasuna (prestasuna grabatzeko GSFren sistema) eta partidaren ordutegia eta tokia. Lehenetsuna eman behar zaio partidak ondo esleitzeari, haien garrantzian edo konplexutasunean oinarrituta, baita epaile eta laguntzaileen gaitasuna aintzat hartuta ere. Era berean, jardunaldi osoa betetzen saiatu beharko da.
- ▶ Partidak esleitzean honako faktore hauek hartuko dira kontuan: Prestasuna, inplikazioa, kualifikazioa eta ibilbidea.
- ▶ Beste lehiaketa batzuekin bateragarriak ez direla-eta partidarik esleituta ez duten epaileek GSFrako noiz dauden libre grabatu beharko dute eta GEBrako txostenak egiteko prest egon beharko dute.
- ▶ Lesioak eragindako bajak justifikatu egin beharko dira, hura egiaztatzen duen mediku-agiriaren argazkia edo pdf-a posta elektronikoz bidalita (arbitros@gisaski.eus). Lesioa jakinarazten duen unetik aurrera ez zaio partidarik esleituko alta-agiria e-mailez bidaltzen duen arte.
- ▶ Prestasuna grabatzea GSFren prozeduran ezarritakoaren arabera.
- ▶ GSFrako eta ESFrako prestasuna plataforma banatan grabatu behar da eta bi plataforma horietan grabatutakoak bat etorri behar du. Euskadiko eta Gipuzkoako batzordeetan ezarritako prestasunak bat ez badatoz, epaileen zuzendariari jakinaraziko zaio, eta bat ez-etortze hori hutsegite larritzat hartuko du.

7. Jokabide-arauak

- ▶ Instalazioetara iristea: GSFk antolatutako lehiaketa guztietara 20 minutuko aurrerapenez, betiere aurreko lanak direla-eta ahal bada.
- ▶ Egiatzatu beharrekoak:
 - a) Joko-zelaia egoera onean dago partida jokatzeko.
 - b) Joko-zelaiko muga-marrek margotuta egon behar dute (bandak, hondoa eta erdiko marra zein zirkulua).
 - c) Jaurtiketa librerako marrek, eremu mugatuek, jaurtiketa libreetarako erreboteko posizioek eta 3 puntuko eremuak margotuta egon behar dute.
 - d) Aulkietako eremuek eta sake-marrak pistan margotuta eta markatuta egon behar dute. Gainera, aulkiak aulkietarako eremuaren barnean daudela egiatzatu behar dute.
- ▶ Jokorako gainerako elementuek pistan egon behar dute, betiere partida jokatzeko egoera egokian:
 - a) Saskiek neurri egokia izan behar dute, eta euskarri bati lotuta egon behar dute (lurrean edo instalazioko sabaian). Era berean, jokatzeko egoera egokian egon behar dute.
 - b) Taulek dagokien neurria eduki behar dute, eta jokatzeko egoera egokian egon behar dute.
 - c) Uztailek egoera egokian egon behar dute partidarako.
 - d) Jaurtiketa-erlojuko gailuak (partidaren kategorian nahitaezkoak badira): Ondo ikusteko modukoak izan behar dute, eta hondoaren alboetan jarrita egon behar dute (instalazioaren arabera, alde batean edo bestean egon litezke) eta gailuari konektatuta, ohargileek erabil dezaten.
 - e) Markagailuak (halakorik badago) mahaiko gailura konektatuta egon behar du, eta ondo ikusteko moduan egon behar du jarrita.
- ▶ Mahaiko elementuak: ohargileek partida jokatzeko behar diren material guztiak bertan daudela egiatzatu behar dute: ekipo-falten zein jokalarien falten adierazleak, txandakatze-gezia, markagailuen gailuak eta jaurtiketa-erlojua.
- ▶ Dena behar bezala dagoenean, ohargileek jaurtiketa-erlojuko eta markagailuko gailuak ondo dabilzala egiatzatu behar dute (alegia, puntuak igo edo jaisten direla, joko-denbora ondo dabilela, edukitza-segundoa jaisten direla eta ekipo-faltak igotzen direla), baita gailu bakoitzaren seinaleak ondo jotzen duela ere.

- ▶ Puntu horietakoren bat betetzen ez bada, etxeko taldeari edo kantzako ordezkariari jakinarazi beharko die, arazoa konpontzeko.
- ▶ Epaileen ordainagiriak: GSFren lehiaketa-oinarrietan ezarritako prozeduraren arabera.
- ▶ Ekipamendua: Epaileentzat, GSFren elastikoa, praka beltzak eta zapatila beltzak.
- ▶ Partida amaitu ondorengorako prozedura: partida amaitutakoan, akta, epailearen ordainagiria eta, hala badagokio, txostenak, bidaltzea, eta emaitza sartzea, GSFren lehiaketa-oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Araudi honetan bildutako jokabide-arau horiek ez betetzea hutsegite arintzat hartuko da, betiere dagokion arau-urraketa ESFren diziplina-erregimenean edo GSFren lehiaketa-oinarrietan bilduta ez badaude.

8. Hutsegiteak eta zehapenak

Epaile zein laguntzaileen hutsegite eta zehazpenak ESFren eta GSFren (GSF lehiaketa-epaile bakarra) diziplina-araubidean eta lehiaketa-oinarrietan ezarrita daude. Epaile-zuzendariak gaiaren larritasunaren araberako zehapenak ezar ditzake, GSFren diziplina-araudian edo lehiaketa-oinarrietan bilduta ez dauden kasuetan, eta araudi honen arabera jardungo du beti.

Barne-araudi hau ez betetzeagatik zehazpenak: arinak, larriak eta oso larriak.

Arinak: ohartarazpena. Behin eta berriz gertatzen badira, hutsegite larritzat hartuko dira.

Larriak: 1-3 atsedenaldirako tekniko. Organo eskudunak aplikatuko ditu lehiaketak ondo egiteko egoki irizten diren egun eta jardunaldietan.

Oso larriak: gutxienez 3 atsedenaldirako tekniko eta gehienez aldi baterako kentzea. Organo eskudunak aplikatuko ditu lehiaketak ondo egiteko egoki irizten diren egun eta jardunaldietan.

9. Azken xedapenak

- ▶ Araudian bildu ez diren kasuak. Araudi honetan bildu ez den gorabehera oro, baldin eta GEBko edozein kideri badagokio, epaile-zuzendariak ebatziko du, eta horretarako, goiko organoekin eta bere laguntzaileekin kontsultatu ahal izango du.

- ▶ Araudia aldatzea. Araudi honi aldaketak egiteko Batzar Nagusiak onespena eman beharko du, baita aldaketak zuzendu ere.
- ▶ Araudia indarrean hastea. Araudi hau GSFren Batzar Nagusiak onartutakoan hasiko da indarrean.